Auditore independente batek egindako urteko kontuen ikuskapen-txostena
Informe de Auditoría de Cuentas Anuales emitido por un auditor independiente

**URAREN EUSKAL AGENTZIA-
AGENCIA VASCA DEL AGUA**

2019ko abenduaren 31n amaitutako
Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena
Cuentas Anuales e Informe de gestión del ejercicio
terminado el 31 de diciembre de 2019

## Auditore independente batek egindako urteko kontuen ikuskapen-txostena

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarentzat URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUAren Funtsa sozialaren titular bakarra—, Administrazio Kontseiluaren aginduz:

*Iritzia salbuespenekin*

URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUA zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren urteko kontu erantsiak ikuskatu ditugu. Erakunde hori Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren jabetzakoa da eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera atxikita dago (1.1. oharra). Urteko kontu horiek 2019ko abenduaren 31ko balantzea eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galeren eta irabazien kontua, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta memoria biltzen dituzte.

Gure iritziz, "Iritzia salbuespenekin emateko oinarria" puntuan deskribatutako egintzek izan ditzaketen ondorioak izan ezik, urteko kontu erantsiek URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUA zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2019ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren eta ondarearen irudi zehatza islatzen dute, alderdi adierazgarri guztietan, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi zehatza ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazioko arauzko esparruaren arabera eta, zehazki, bertan biltzen diren kontabilitate-printzipioen eta -irizpideen arabera.

## Informe de Auditoría de Cuentas Anuales emitido por un Auditor Independiente

A la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, único titular del Fondo Social URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUA, por encargo del Consejo de Administración:

*Opinión con salvedades*

Hemos auditado las cuentas anuales del Ente Público de Derecho Privado URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUA (Ente perteneciente a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi) y que se encuentra adscrito al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda (Nota 1.1), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2019, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, excepto por los posibles efectos del hecho descrito en el párrafo de "Fundamento de la opinión con salvedades", las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del Ente Público de Derecho Privado URAREN EUSKAL AGENTZIA-AGENCIA VASCA DEL AGUA a 31 de diciembre de 2019, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

C/ Rodríguez Arias, 23, planta 6ª, Dpto.12 48011 Bilbao Teléfono: +34 944 702 590 Fax: +34 944 702 591 e-mail: auditoria@mazars.es
Oficinas en: Alicante, Barcelona, Bilbao, Madrid, Málaga, Valencia, Vigo

MAZARS Auditores, S.L.P. Domicilio Social: C/Diputació, 260, 08007 Barcelona
Registro Mercantil de Barcelona, Tomo 30.734, Folio 212, Hoja B-180111, Inscripción 1ª, N.I.F. B-61622262
Inscrita con el número S1189 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (ROAC)

Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

*Iritzia salbuespenekin emateko oinarria*

1.2. oharrean adierazten denez, Erakundeak, 2008ko urtarrilaren 1ean, 11.966 mila euro kontabilizatu zuen balantzearen aktiboko "Ibilgetu materiala" epigrafean, eta zenbateko hori egoera-balantzeko "ondare garbia" kapituluaren "funtsa soziala" kontura ordaindutako aktibo atxikien balio garbiari dagokio — abenduaren 18ko 233/2007 Dekretuaren arabera—.Txosten hau jaulkitzeko datan, ez dugu lortu hasierako atxikipenaren mende izan ziren ondasunen bizitza erabilgarriari, existentzia fisikoari, integritateari eta balorazio banakatuari buruzko azterketa tekniko xehaturik. 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuen gaineko ikuskapenari buruzko iritziak arlo horretako salbuespena zuen.

Kontu-ikuskapena egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapenari buruzko jarduera erregulatzen duen araudiari jarraitu diogu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko dira, gure txostenaren *Auditorearen erantzukizunak, urteko kontuen ikuspenari dagokionez* atalean.

Espainian urteko kontuen gure kontu-ikuskapenari aplikatzekoak zaizkion etikako errekerimenduekin — independentziakoak barne hartuta— bat etorriz, ez dugu loturarik erakundearekin, kontu-ikuskapeneko jardueraren araudi erregulatzaileak eskatu bezala. Zentzu horretan, kontu-ikuskapeneko zerbitzuak baino ez ditugu eskaini, eta ez da —araudi erregulatzaile horretan finkatutakoa kontuan hartuta— beharrezkoa zen independentzia baldintzatu duen egoerarik eman.

*Fundamento de la opinión con salvedades*

Tal y como se detalla en la Nota 1.2, el Ente contabilizó el 1 de enero de 2008 en el epígrafe "Inmovilizado material" del activo del balance, 11.966 miles de euros que se corresponden con el valor neto otorgado a los activos adscritos conforme al Decreto 233/2007, de 18 de diciembre con abono a la cuenta "Fondo Social" del capítulo "Patrimonio Neto" del balance de situación. A la fecha de emisión de este informe no hemos obtenido un estudio técnico detallado sobre las vidas útiles, existencia física, integridad y valoración individualizada de los bienes objeto de la adscripción inicial. La opinión de auditoría sobre las cuentas anuales correspondientes al ejercicio terminado el 31 de diciembre de 2018 contenía una salvedad por esta cuestión.

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes del Ente de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentan ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

Gure ustez, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du kontu-ikuskapeneko gure iritzia salbuespenekin emateko.

*Kontu-ikuskapenaren inguruko alderdi azpimarragarrienak*

Gure iritzi profesionalaren arabera, kontu-ikuskapenaren inguruko alderdi azpimarragarrienak honako hauek dira: egungo aldiaren urteko kontuen inguruko gure kontu-ikuskapenean oker materialak gertatzeko arrisku gisa hartutako alderdiak. Arrisku horiek urteko kontuen gure kontu-ikuskapenaren testuinguruan —osotasunean hartuta— eta kontu horien inguruko gure iritzia osatzean aztertu dira, eta arrisku horiei buruzko iritzia ez dugu bereizita ematen.

Iritzia salbuespenekin emateko oinarria atalean deskribatutako kontuez gain, erabaki dugu ondoren deskribatuko diren arriskuak direla gure txostenean jakinarazi behar den kontu-ikuskapenean kontuan hartutako arrisku azpimarragarrienak.

*Uraren kanonaren ondoriozko sarreren aitorpena*

Erantsitako memoriaren 4.7. eta 15.1. oharretan deskribatutakoaren arabera, 2009ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen 181/2008 Legegintzako Dekretua, uraren kanonaren erregimen ekonomiko eta finantzarioa arautzen duena, eta Erakundeak 2.126 mila euroko (2.552 mila euro 2018an) sarrera erregistratu zuen erantsitako 2019ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafean. Ekitaldia ixtean, "Salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak" epigrafean, zenbateko horretatik 1.625 mila euro (1.584 mila euro 2018an) kobratu gabe daude. Kanon horren kudeaketari dagokionez, uraren kanonaren sortzapenaren eta erakunde hornitzaileek eta hirugarrenek

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión con salvedades.

*Aspectos más relevantes de la auditoría*

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos aspectos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Además de las cuestiones descritas en la sección Fundamento de la opinión con salvedades, hemos determinado que los riesgos que se describen a continuación son los riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deben comunicar en nuestro informe.

*Reconocimiento de los ingresos derivados del canon del agua*

Según se describe en la Notas 4.7 y 15.1 de la memoria adjunta, con fecha 1 de enero de 2009 entró en vigor el Decreto Legislativo 181/2008 que regula el régimen económico-financiero del canon del agua, habiendo registrado el Ente, un ingreso de 2.126 miles de euros (2.552 miles de euros en 2018) en el epígrafe "Importe neto de la cifra de negocios" de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2019 adjunta, encontrándose al cierre del ejercicio en el epígrafe "Clientes por ventas y prestaciones de servicios" 1.625 miles de euros (1.584 miles de euros en 2018) pendientes de cobro del citado importe. Con respecto a la gestión del citado canon, existe un desfase temporal entre el devengo del canon del agua y la



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

aurkeztutako aitorpenen eta autolikidazioen artean denbora-desfase bat dago. Beraz, sarrera horiek onartzea balioespen eta judizio azpimarragarrien baitan dago. Horregatik, eta sarrera horiek duten garrantzia kontuan hartuta, gure kontu-ikuskapenaren alderdi azpimarragarritzat jo da.

Alderdi azpimarragarri hori aztertzeko gure kontu-ikuskapeneko prozeduren barne sartu dira, besteak beste,

- uraren kanon horrekin lotuta —kanon horren kudeaketa-aplikazioaren bidez egina—, Erakundearen zuzendaritzak egindako sarreren balioespen-prozesuaren ebaluazioa,

-ikuskatutako ekitaldian egindako likidazioekin eta autolikidazioekin eta hauei dagozkien kobrantzekin, aurreko ekitaldian egindako diru-sarreren balioespenaren arrazoizkotasunaren ebaluazioa,

- entitate bakoitzeko uraren kanon-sarreren xehetasuna eskuratzea, kontabilitatearekin bat ote datorren egiaztatuz,

- aurreko xehetasunaren lagin batean oinarrituta, hainbat partida aukeratzea, kanonaren balioespenaren kalkuluaren arrazoizkotasuna egiaztatzeko, bai ekitaldia itxi ondorengo likidazioen, autolikidazioen eta kobrantzen bidez, edo aldizka, aurreko ekitaldietako likidazioetan eta autolikidazioetan oinarrituta,

- ekitaldia ixtean kobratzeko dagoen fakturatutako zenbatekoa bezeroei berrestea eskatzeko prozedurak gauzatzea, hautabide gisa jasotako kobrantzei buruzko egiazko probak burutuz eta

presentación de las correspondientes declaraciones y autoliquidaciones por parte de las entidades suministradoras y de terceros, por tanto, el reconocimiento de dichos ingresos está sujeto a estimaciones y juicios significativos. Por dicho motivo y dada la magnitud que representan los citados ingresos, se ha considerado como aspecto más relevante de nuestra auditoría.

Nuestros procedimientos de auditoría para abordar este aspecto relevante han incluido, entre otros,

- la evaluación del proceso de estimación de ingresos realizado por la dirección del Ente en relación al citado canon del agua realizado a través del aplicativo de gestión de dicho canon,

- la evaluación de la razonabilidad de la estimación de ingresos realizada el ejercicio anterior con las liquidaciones y autoliquidaciones realizadas y sus correspondientes cobros en el ejercicio auditado,

- la obtención del detalle de ingresos de canon del agua por entidad verificando su cuadre con la contabilidad,

- sobre una muestra del detalle anterior, selección de diversas partidas con el fin de verificar la razonabilidad del cálculo de la estimación del canon bien a través de liquidaciones, autoliquidaciones y cobros posteriores al cierre del ejercicio o bien alternativamente en base a las liquidaciones y autoliquidaciones de ejercicios anteriores,

- la realización de procedimientos de solicitud de confirmaciones a clientes del importe facturado pendiente de cobro al cierre del ejercicio, realizando pruebas sustantivas sobre cobros recibidos como medio alternativo y



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

- uraren kanona jaulkiz diru-sarrerei buruzko memoriaren xehakapen egokia, finantza-informazioko esparru arauemailearen errekerimenduak kontuan izanik, ebaluatzea.

- la evaluación del adecuado desglose en la memoria relativa a los ingresos por emisión del canon del agua con el marco de información financiera aplicable.

*Bestelako informazioa: Kudeaketa-txostena*

Bestelako informazioan 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena baino ez da biltzen. Txosten hori egiteko ardura Erakundeko administratzaileena da eta ez da urteko kontuetan sartzen.

Urteko kontuei buruzko gure kontu-ikuskapeneko iritziak ez du kudeaketa-txostena barne hartzen. Kontu-ikuskapeneko jarduera erregulatzen duen araudian eskatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenari buruzko gure erantzukizuna honako hau da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat ote datozen ebaluatzea eta jakinaraztea. Hori guztia, kontu horien ikuskapena egitean —eta bertan ebidentzia gisa jasotakoa ez den informazioa barne hartu gabe— eskuratutako Erakundearen ezagutzan oinarrituta gauzatuko da. Halaber, gure ardura da kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat ote datozen ebaluatzea eta jakinaraztea. Egin dugun lanean oinarrituta, huts materialak daudela ondorioztatzen badugu, horren berri ematera behartuak gaude.

Egindako lanean oinarrituta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenean bildutako informazioa 2019ko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin bat dator, eta bere edukiak eta aurkezpenak aplikatzekoa den araudia betetzen dute.

*Otra información: Informe de gestión*

La otra información comprende exclusivamente el informe de gestión del ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2019 cuya formulación es responsabilidad de los administradores del Ente, y no forma parte integrante de las cuentas anuales.

Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales no cubre el informe de gestión. Nuestra responsabilidad sobre el informe de gestión, de conformidad con lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas, consiste en evaluar e informar sobre la concordancia del informe de gestión con las cuentas anuales, a partir del conocimiento del Ente obtenido en la realización de la auditoría de las citadas cuentas y sin incluir información distinta de la obtenida como evidencia durante la misma. Asimismo, nuestra responsabilidad consiste en evaluar e informar de si el contenido y presentación del informe de gestión son conformes a la normativa que resulta de aplicación. Si, basándonos en el trabajo que hemos realizado, concluimos que existen incorrecciones materiales, estamos obligados a informar de ello.

Sobre la base del trabajo realizado, según lo descrito en el párrafo anterior, la información que contiene el informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2019 y su contenido y presentación son conformes a la normativa que resulta de aplicación.



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

*Administratzaileen erantzukizunak urteko kontuei dagokienez*

Administratzaileei dagokie erantsitako urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna, Erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza adierazteko, Espainian aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearekin bat etorriz. Haien erantzukizunpekoa da, orobat, urteko kontuak iruzurraren edo akatsaren ondoriozko huts materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrola.

Urteko kontuen prestaketan, Erakundeak enpresa gisa funtzionatzen jarraitzeko duen gaitasuna baloratzeko erantzukizuna dute administratzaileek. Horretarako, eta hala badagokio, funtzionatzen ari den enpresarekin lotutako gaiak jakinaraziko ditu eta funtzionatzen ari den enpresako kontabilitate-printzipioa erabiliko du, administratzaileek Erakundea likidatzeko edo beren eragiketekin aurrera ez jarraitzeko asmoa duten kasuetan edo beste aukerarik ez dagoen kasuan izan ezik.

*Auditorearen erantzukizunak, urteko kontuen ikuskapenari dagokionez*

Gure helburuak honako hauek dira: iruzurraren edo akatsaren ondorioz urteko kontuek, oro har, oker materialik ez duten arrazoizko ziurtasuna lortzea, eta gure iritzia bilduko duen kontu-ikuskapeneko txosten bat egitea. Arrazoizko ziurtasunak ziurtasun handia erakusten du. Hala ere, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskapeneko jarduera erregulatzen duen araudiarekin bat etorrita egindako kontu-ikuskapen batek edozein oker material —halakorik baldin badago— hautemango duela ez du bermatzen. Okerrak iruzur edo akats baten ondorioz gerta daitezke, eta oker materialtzat jotzen dira, bakarka edo erantsita, urteko kontuetan oinarrituta

*Responsabilidades de los administradores en relación con las cuentas anuales*

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados del Ente, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable al Ente en España y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad del Ente para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar el Ente o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

*Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales*

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión. Seguridad razonable es un alto grado de seguridad pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragiten dutela aurreikus badaiteke.

Espainian kontu-ikuskapeneko jarduera erregulatzen duen araudiaren araberako kontu-ikuskapen baten zati gisa, gure judizio profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu kontu-ikuskapen osoan zehar. Gainera:

- Iruzurraren edo akatsaren ondorioz, urteko kontuetan oker materialen arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko kontu-ikuskapeneko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzirako oinarri bat emateko kontu-ikuskapeneko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzur baten ondorioz oker material bat ez hautemateko arriskua akats baten ondorioz oker material bat ez hautematekoa baino handiagoa da; izan ere, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, nahita oker egindako adierazpenak edo barne-kontrola saihestea berekin loturik eduki ditzakeelako.

- Kontu-ikuskapena egiteko barne-kontrolaren inguruko ezagutza garrantzitsuak eskuratzen ditugu, egoeren arabera egokiak izango diren kontu-ikuskapeneko prozedurak diseinatzeko, eta ez, ordea, Erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emateko.

- Aplikatutako kontabilitateko politikak egokiak diren eta kontabilitate-zenbatespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, baita gaiarekin lotuta administratzaileek emandako informazioa ere.

- Funtzionatzen ari den enpresa baten kontabilitate-printzipioa administratzaileek erabiltzea egokia ote den erabakitzen dugu. Era horretan, lortutako kontu-ikuskapeneko ebidentzian oinarrituta, funtzionatzen ari den enpresa

influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno del Ente.

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.

- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una


Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

gisa jarraitzeko Erakundearen ahalmenari buruzko zalantza garrantzitsuak eragin ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako zalantza material bat dagoen ala ez ondorioztatzen dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure kontu-ikuskapeneko txostenean urteko kontuetan jakinarazitako informazioaren inguruan ohartarazi beharko dugu; halaber, jakinarazte horiek egokiak ez badira, iritzi aldatua eman beharko dugu. Gure ondorioak gure kontu-ikuskapeneko txostena egin den datara arte eskuratutako kontu-ikuskapeneko ebidentzian oinarrituta daude. Hala ere, Erakundea funtzionatzen ari den enpresa bat izateari uzteko kausa izan daitezke etorkizunean azalduko diren baldintzak edo gertakariak.

• Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia —jakinarazitako informazioa barne— ebaluatzen ditugu. Halaber, urteko kontuek azpian diren gertakariak eta transakzioak irudikatzen dituzten —irudi zehatza adieraztea lortuz— ere ebaluatzen dugu.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan jarri ginen, besteak beste, planifikatutako kontu-ikuskapenaren irismena eta kontu-ikuskapen hori egiteko unea zehazteko, eta kontu-ikuskapenean aurkitutako gertakari azpimarragarrien inguruko gaiak aipatzeko, baita kontu-ikuskapenean zehar aurkitu genuen barne-kontroleko edozein huts azpimarragarri adierazteko ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arrisku azpimarragarrien artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskapenean garrantzi handiena izan dutenak zehaztu ditugu, ustez horiek baitira arrisku nabarmenenak.

incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad del Ente para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que el Ente deje de ser una empresa en funcionamiento.

• Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con los administradores del Ente en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores del Ente, determinamos las que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.



Praxity MEMBER • GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

Arrisku horiek gure kontu-ikuskapeneko txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta lege-xedapenek edo erregelamenduzko xedapenek gaia publikoki jakinaraztea debekatzen ez badute.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Bilbo, 2020ko ekainaren 15a
Bilbao, 15 de junio de 2020

MAZARS AUDITORES, S.L.P.
ROAC Nº S1189 zb.

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

MAZARS AUDITORES, S.L.P

2020 Núm. 03/20/03452
SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR
Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

____________________________
Josep Pou Setó
ROAC Nº 15784 zb.



Praxity MEMBER GLOBAL ALLIANCE OF INDEPENDENT FIRMS

ura | ur agentzia
agencia vasca del agua

Doña Esperanza Zurinaga, en su calidad de Secretaria del Consejo de Administración de la Agencia Vasca del Agua, con el visto bueno de la Presidenta

**CERTIFICA:**

I. Que las Cuentas Anuales e Informe de Gestión adjuntos correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2019 correspondiente a la Agencia Vasca del Agua, han sido extendidas en hojas, incluida la hoja de firmas, de papel común escritas a una sola cara, en el siguiente orden:

| | |
|---|---|
| - Balance | Página 4 |
| - Cuenta de Pérdidas y Ganancias | Página 5 |
| - Estado de Cambios en el Patrimonio Neto | Página 6 |
| - Estado de Flujos de Efectivo | Página 7 |
| - Memoria | Páginas de la 8 a la 60 |
| - Informe de Gestión | Páginas de la 61 a la 97 |

II. Que dichas Cuentas Anuales e Informe de Gestión correspondientes a la Agencia Vasca del Agua, cuya autenticidad garantiza, han sido formuladas por unanimidad por todos los miembros del Consejo de Administración de la Agencia del Agua con cargo vigente a dicha fecha en su sesión del día 12 de junio de 2020, en la que ha sido manifestada la conformidad de todos ellos con las citadas Cuentas Anuales e Informe de Gestión, sesión que fue celebrada, al amparo de lo previsto en el artículo 40 del Real Decreto-Ley 8/2020, de 17 de marzo de la siguiente forma:

- Mediante reunión virtual celebrada al efecto, por disponer todos los miembros del Consejo de Administración de los medios necesarios, habiendo sido reconocida la identidad de los consejeros por la que suscribe, en calidad de Secretaria el Consejo de Administración. Se hace constar que las circunstancias anteriores se han hecho constar el acta que se remitió de inmediato a las direcciones de correo electrónico de cada uno de los concurrentes.

III. En dicha sesión, el Consejo de Administración ha facultado y delegado en Doña Elena Moreno Zaldibar, Viceconsejera de Medio Ambiente, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 2.1 a) del Decreto 221/2007, de 4 de diciembre, del Consejo de Administración de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua (*), quien aceptó, la firma de las citadas Cuentas Anuales e Informe de Gestión (páginas 1 a 97), escritas a una sola cara que preceden al presente documento, mediante firma manuscrita.

IV. El motivo por el que el resto de los consejeros no han firmado las Cuentas Anuales e Informe de Gestión del ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2019, expresamente así acordado en la indicada sesión del Consejo de Administración, es la situación excepcional originada por la crisis del COVID-19, y en virtud del Real Decreto-Ley 8/2020, de 17 de marzo, de Medidas Urgentes Extraordinarias para hacer frente a al impacto económico y social del COVID-19 que ha imposibilitado disponer de un único ejemplar de Cuentas Anuales e Informe de Gestión con la firma de todos los Consejeros.

En consecuencia con lo anterior, la falta de firma del resto de los Consejeros no obedece a una disconformidad de los mismos con las Cuentas Anuales e Informe de Gestión correspondientes al ejercicio 2019, sino a las circunstancias indicadas en el párrafo precedente.

Y para que conste y surta todos los efectos legalmente procedentes expido la presente Certificación, con el visto bueno de la Presidenta, en Vitoria-Gasteiz, a 12 de junio de 2020.

Dña. Esperanza Zurinaga Bañales
Secretaria

Doña Elena Moreno Zaldibar
Presidenta
(Artículo 2.1.a), del Decreto 221/2007)

(*) DECRETO 221/2007, de 4 de diciembre, del Consejo de Administración de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.

"Artículo 2 – Composición del Consejo de Administración.
1. – El Consejo de Administración de la Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua estará integrado por las y los siguientes miembros:
a. Presidente o presidenta: el Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de medio ambiente o la persona por él o ella designada, quien tendrá voto de calidad. En casos de ausencia o enfermedad, será suplido por el o la representante del Departamento de la Administración General del País Vasco al cual se halle adscrita la Agencia Vasca del Agua.".

ur agentzia
agencia vasca del agua

# 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOZKION URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA

# CUENTAS ANUALES E INFORME DE GESTION CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 12a

Vitoria-Gasteiz, 12 de junio de 2020

# EGOERA-BALANTZEA 2019KO ABENDUAREN 31N *(Eurotan)*
## *BALANCE DE SITUACIÓN AL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 (En Euros)*

(Eurotan adierazia/ Expresado en Euros)

| AKTIBOA<br>*ACTIVO* | MEMORIAKO OHARRA<br>Nota de memoria | 31.12.19 | 31.12.18 |
|---|---|---|---|
| **AKTIBO EZ-KORRONTEA**<br>***ACTIVO NO CORRIENTE*** | | 174.169.179 | 159.481.496 |
| **Ibilgetu ukiezina**<br>***Inmovilizado intangible*** | 5. Oharra<br>Nota 5 | 1.291.479 | 779.558 |
| **Ibilgetu materiala**<br>***Inmovilizado material*** | 6.Oharra<br>Nota 6 | 172.877.700 | 158.701.938 |
| Lursailak eta eraikinak<br>*Terrenos y construcciones* | | 143.601.495 | 146.374.927 |
| Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materiala<br>*Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material* | | 1.118.710 | 1.027.408 |
| Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak<br>*Inmovilizado en curso y anticipos* | | 28.157.495 | 11.299.603 |
| AKTIBO KORRONTEA<br>ACTIVO CORRIENTE | | 23.254.345 | 22.289.420 |
| **Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk**<br>**Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar** | | 4.623.894 | 7.023.804 |
| Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu- emateagatik<br>Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 15.1 Oharra<br>Nota 15.1 | 4.576.640 | 4.433.168 |
| Langileak<br>Personal | | 39.925 | 57.479 |
| Beste zordunak<br>Otros deudores | | 108 | 33.157 |
| Administrazio Publikoekiko beste kreditu batzuk<br>Otros créditos con las Administraciones Públicas | 14.1 Oharra<br>Nota 14.1 | 7.221 | 2.500.000 |
| **Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak**<br>**Efectivo y otros activos líquidos equivalentes** | 9. Oharra<br>Nota 9 | 18.630.451 | 15.265.616 |
| Diruzaintza<br>Tesorería | | 18.630.451 | 15.265.616 |
| AKTIBOA GUZTIRA<br>TOTAL ACTIVO | | 197.423.524 | 181.770.916 |

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA<br>PATRIMONIO NETO Y PASIVO | MEMORIAKO OHARRA<br>Nota de memoria | 31.12.19 | 31.12.18 |
|---|---|---|---|
| ONDARE GARBIA<br>PATRIMONIO NETO | | 182.511.332 | 168.512.209 |
| **Funts propioak**<br>**Fondos propios** | 10. Oharra<br>Nota 10 | 11.653.658 | 11.653.658 |
| Gizarte-funtsa<br>Fondo social | | 11.965.738 | 11.965.738 |
| Gerakina<br>Remanente | | (312.080) | (312.080) |
| Ekitaldiko emaitza<br>Resultado del ejercicio | | - | - |
| **Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak**<br>**Subvenciones, donaciones y legados** | 11. Oharra<br>Nota 11 | 170.857.674 | 156.858.551 |
| PASIBO KORRONTEA<br>PASIVO CORRIENTE | | 14.912.192 | 13.258.707 |
| **Epe laburrerako hornidurak**<br>**Provisiones a corto plazo** | | -<br>- | - |
| **Epe laburrerako zorrak**<br>**Deudas a corto plazo** | | 5.287.309 | 1.195.632 |
| Beste finantza-pasibo batzuk<br>Otros pasivos financieros | 6. eta 13. Oharra<br>Notas 6 y 13 | 5.287.309 | 1.195.632 |
| **Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk**<br>**Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar** | | 9.624.883 | 12.063.075 |
| Hornitzaileak, Taldeko enpresak eta enpresa kidetuak<br>Proveedores, empresas del grupo y asociadas | 17. Oharra<br>Nota 17 | 288.478 | 824.077 |
| Merkataritzako hartzekodunak<br>Acreedores comerciales | | 7.118.032 | 5.014.711 |
| Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)<br>Remuneraciones pendientes de pago | | 1.117 | 1.117 |
| Administrazio Publikoekiko beste zor batzuk<br>Otras deudas con las Administraciones públicas | 14.1 Oharra<br>Nota 14.1 | 2.217.256 | 6.223.170 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA<br>TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO | | 197.423.524 | 181.770.916 |

# GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA, 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA (Eurotan)

# *CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 (En euros)*

| | Memoriako oharra<br>*Nota de la memoria* | 31.12.19 | 31.12.18 |
|---|---|---|---|
| A) ERAGIKETA JARRAITUAK<br>*A) OPERACIONES CONTINUADAS* | | | |
| 1. Negozio kopuruaren zenbateko garbia<br>*1. Importe neto de la cifra de negocios* | Nota 15.1 | 4.806.346 | 6.119.185 |
| a) Zerbitzuak ematea<br>*a) Prestaciones de servicios* | | 4.806.346 | 6.119.185 |
| 2. Hornidurak<br>*2. Aprovisionamientos* | Nota 15.2 | (9.153.825) | (12.165.241) |
| a) Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa<br>*a) Consumo de materias primas y otras materias consumibles* | | (9.153.825) | (12.165.241) |
| *3. Otros ingresos de explotación* | | 11.503.189 | 9.686.117 |
| a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk<br>*a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente* | Nota 11.2 | 120.661 | 118.732 |
| b) Ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiapenerako diru-laguntzak<br>*b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio* | Nota 11 | 11.382.528 | 9.567.385 |
| 4. Langile-gastuak<br>*4. Gastos de personal* | Nota 15.3 | (9.444.810) | (8.937.371) |
| a) Soldatak, alokairuak eta berdinetsiak<br>*a) Sueldos, salarios y asimilados* | | (7.397.494) | (7.100.011) |
| b) Gizarte-kargak<br>*b) Cargas sociales* | | (2.047.316) | (1.837.360) |
| 5. Ustiapeneko beste gastu batzuk<br>*5. Otros gastos de explotación* | | (6.865.226) | (6.860.975) |
| a) Kanpoko zerbitzuak<br>*a) Servicios exteriores* | | (6.744.565) | (6.742.243) |
| b) Tributuak<br>*b) Tributos* | | - | - |
| d) Ohiko kudeaketari lotutako beste gastu batzuk | Nota 11.2 | (120.661) | (118.732) |
| 6. Ibilgetuaren amortizazioa<br>*6. Amortización del inmovilizado* | Notas 5 y 6 | (5.051.855) | (4.974.736) |
| 7. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena<br>*7. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras* | Nota 11 | 14.205.681 | 17.139.976 |
| 8. Bestelako emaitzak<br>*8. Otros resultados* | | 500 | (6.955) |
| USTIAPEN EMAITZA<br>*RESULTADO DE EXPLOTACIÓN* | | - | - |
| 9. Finantza-sarrerak<br>*9. Ingresos financieros* | | - | - |
| a) Balore negoziagarrietatik eta aktibo ibilgetuaren kredituetatik datozenak<br>*a) De valores negociables y de créditos del activo inmovilizado* | | - | - |
| a1) Hirugarrenetatik datozenak<br>*a1) De terceros* | Nota 15.5 | - | - |
| 10. Finantza-gastuak<br>*10.Gastos financieros* | | - | - |
| a) Hirugarrenekiko zorrengatik<br>*a) Por deudas con terceros* | | | - |
| FINANTZA-EMAITZA<br>*RESULTADO FINANCIERO* | | - | - |
| ZERGEN AURRETIKO EMAITZA<br>*RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS* | | - | - |
| 11. Irabazien gaineko zergak<br>*11. Impuestos sobre beneficios* | Nota 4.6 | - | - |
| ERAGIKETA JARRAITUETATIK SORTUTAKO EKITALDIKO EMAITZA<br>*RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS* | | - | - |
| EKITALDIKO EMAITZA<br>*RESULTADO DEL EJERCICIO* | | - | - |

# 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE GARBIAREN EGOERA-ALDAKETEN EGOERA (Eurotan)

# *ESTADO DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO DEL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 (En euros)*

| **A) KONTABILIZATUTAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA**<br>***A) ESTADO DE INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS*** | *Memoriako oharra*<br>*Nota de la memoria* | **31.12.19** | **31.12.18** |
|---|---|---|---|
| | | | |
| A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza<br>*A) Resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias* | | - | - |
| | | | |
| B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak<br>*B) Ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto* | | | |
| I. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak<br>*I. Subvenciones, donaciones y legados* | 11.Oharra<br>Nota 11 | 28.204.804 | 28.196.733 |
| *Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak, guztira*<br>*Total ingresos y gastos imputados directamente en el patrimonio neto* | | *28.204.804* | *28.196.733* |
| | | | |
| C) Galera eta irabazien kontura transferitutakoak<br>*C) Transferencias a la cuenta de pérdidas y ganancias* | | | |
| I. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak<br>*I. Subvenciones, donaciones y legados* | *11.Oharra*<br>Nota 11 | (14.205.681) | (17.139.976) |
| *Galera eta irabazien kontura transferitutakoak, guztira*<br>*Total transferencias a la cuenta de pérdidas y ganancias* | | *(14.205.681)* | *(17.139.976)* |
| | *11.Oharra* | | |
| *Jasotako diru-laguntzen gaindikina*<br>*Exceso de subvenciones recibidas* | Nota 11 | | - |
| | | | |
| KONTABILIZATUTAKO SARRERAK/GASTUAK, GUZTIRA (A + B + C)<br>*TOTAL DE INGRESOS Y GASTOS RECONOCIDOS (A + B + C)* | | 13.999.123 | 11.056.757 |

**B) 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA**
***B) ESTADO TOTAL DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE 2019***

| | Kapitala<br>*Capital*<br>Eskrituratua<br>*Escriturado* | Ekitaldiko Emaitza<br>Resultado Ejercicio | Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak<br>Subvenciones, donaciones y legados | GUZTIRA<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| A. SALDO DOITUA, EKITALDIAREN HASIERA (2018ko urtarrilaren 1a)<br>*A. SALDO AJUSTADO, INICIO DEL EJERCICIO 1 de enero 2018* | *11.653.658* | - | *145.801.794* | *157.455.452* |
| I. Kontabilizatutako diru-sarrerak eta gastuak guztira<br>I.Total ingresos y gastos reconocidos | - | - | 11.056.757 | 11.056.757 |
| B. SALDOA, EKITALDIAREN AMAIERA - 2018ko abenduaren 31<br>*B. SALDO, FINAL DEL EJERCICIO - 31 diciembre 2018* | *11.653.658* | - | *156.858.551* | *168.512.209* |
| I. Doikuntzak ekitaldiko akatsengatik (*)<br>I. Ajustes por errores del Ejercicio (*) | - | - | - | - |
| C. SALDO DOITUA, EKITALDIAREN HASIERA (2019ko urtarrilaren 1a)<br>*C. SALDO AJUSTADO, INICIO DEL EJERCICIO 1 de enero 2019* | *11.653.658* | - | *156.858.551* | *168.512.209* |
| I. Kontabilizatutako diru-sarrerak eta gastuak guztira<br>I. Total ingresos y gastos reconocidos | - | - | 13.999.123 | 13.999.123 |
| D. SALDOA, EKITALDIAREN AMAIERA - 2019ko abenduaren 31<br>*D. SALDO, FINAL DEL EJERCICIO - 31 diciembre 2019* | *11.653.658* | - | *170.857.674* | *182.511.332* |

# 2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA (Eurotan)

# *ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO DEL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019 (En euros)*

| | *Memoriako oharra* *Nota de la memoria* | 31.12.19 | 31.12.18 |
|---|---|---|---|
| **A) USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** ***A) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN*** | | | |
| **1. Ekitaldiko emaitza zergen aurretik** ***1. Resultado del ejercicio antes de impuestos.*** | | - | - |
| **2. Emaitzaren doikuntzak.** ***2. Ajustes del resultado.*** | | **(9.153.826)** | **(12.257.414)** |
| a) Ibilgetuaren amortizazioa (+). / *a) Amortización del inmovilizado (+).* | **5 eta 6 Oharrak Notas 5 y 6** | 5.051.855 | 4.974.736 |
| b) Hondidura aldaketak (+/-). *b) Variación de provisiones (+/-).* | | - | (92.174) |
| c) Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena *c) Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otros* | **11. oharra Nota 11** | (14.205.681) | (17.139.976) |
| **3. Aldaketak kapital korrontean.** ***3. Cambios en el capital corriente.*** | | **(16.182)** | **(2.170.324)** |
| a) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (+/-). *a) Deudores y otras cuentas a cobrar (+/-).* | | 2.399.910 | 49.650 |
| b) Beste aktibo eta pasibo korronte batzuk (+/-). *b) Otros activos y pasivos corrientes (+/-).* | | 22.100 | - |
| b) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-). *b) Acreedores y otras cuentas a pagar (+/-).* | | (2.438.192) | (2.219.974) |
| **4. Ustiapen-jardueren beste eskudiru-fluxu batzuk.** ***4. Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación.*** | | - | - |
| a) Interesak ordaintzea (-). / Pagos de intereses (-). | | - | - |
| b) Interesak kobratzea (+). / Cobros de intereses (+). | | - | - |
| **5. Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxua** **5. Flujos de efectivo de las actividades de explotación** | | **(9.170.008)** | **(14.427.738)** |
| **B) INBERTSIO JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** **B) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN** | | | |
| **6. Inbertsioengatiko ordainketak (-).** **6. Pagos por inversiones (-).** | | **(15.669.961)** | **(9.705.326)** |
| a) Ibilgetu ukiezina./ a) Inmovilizado intangible. | **5.Oharra Nota 5** | (588.419) | (259.218) |
| b) Ibilgetu materiala b) Inmovilizado material. | **6.Oharra Nota 6** | (15.081.542) | (9.446.108) |
| c) Beste finantza-aktibo batzuk./ Otros activos financieros. | | - | - |
| **7. Inbertsio jardueren eskudiru-fluxuak** **7. Flujos de efectivo de las actividades de inversión** | | **(15.669.961)** | **(9.705.326)** |
| **C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK** **C) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACIÓN** | | | |
| **8. Kobrantzak eta ordainketak ondare-tresnengatik.** **8. Cobros y pagos por instrumentos de patrimonio.** | | **28.204.804** | **25.696.733** |
| a) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak a) Subvenciones, donaciones y legados recibidos. | **11. Oharra Nota 11** | 28.204.804 | 25.696.733 |
| **9. Finantza-pasiboaren tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak.** **9. Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero.** | | - | - |
| **10. Finantzaketako jardueren eskudiru-fluxuak** **10. Flujos de efectivo de las actividades de financiación** | | **28.204.804** | **25.696.733** |
| **D) Truke-tasen aldaketen eragina** **D) Efecto de las variaciones de los tipos de cambio** | | - | - |
| **E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA** **E) AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES** | | **3.364.835** | **1.563.669** |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren hasieran** **Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio** | | 15.265.616 | 13.701.947 |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren amaieran.** **Efectivo o equivalentes al final del ejercicio.** | | 18.630.451 | 15.265.616 |

**2019KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION TXOSTENA**

# 1. Enpresaren jarduera

## 1.1. Erakundearen xedea

Ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, Urarenak, II. Kapituluan Uraren Euskal Agentzia (aurrerantzean URA) Eusko Jaurlaritzako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortzen eta arautzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan uraren arloko politika aurrera eramateko tresna nagusia izan dadin.

URA Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita dago, eta haren jarduera –kanpo harremanetan– zuzenbide zibileko, merkataritza zuzenbideko eta lan zuzenbideko arauei lotzen zaie, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak 6.2 artikuluan jasotzen dituen egintzetan izan ezik (ahal publikoak erabiltzea), egintza horiek zuzenbide publikoaren mendean geratzen baitira.

URAren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan uraren arloko politika erakunde bakar baten bidez aurrera eramatea. URAk Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan azaldutako eginkizunak betetzen ditu. Hona hemen eginkizun horiek:

a) Lege horrek planifikazio hidrologikorako aurreikusten dituen tresnak prestatzea eta horiek Gobernuari bidaltzea, eskumena duten erakundeetan onartu, aldatu edo bideratu daitezen.

b) Erkidegoen arteko arroen Estatuko Plangintza Hidrologikoan parte hartzea, beren araudi erregulatzailearen arabera.

c) Jabari publiko hidraulikoa babesteko zereginak amaitzea; bereziki, administrazioaren emakida eta baimenak ematea eta jabari publiko hidraulikoaren araudiarekin bat ez datorren arau-hausterik gertatzen ote den zaindu eta ikuskatu eta, halakorik bada, dagozkion zehapenak ezartzea.

**MEMORIA CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019**

# 1. Actividad de la empresa

## 1.1. Objeto del Ente

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea y regula en su capítulo II la Uraren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Agua (en adelante URA) como ente público de derecho privado del Gobierno Vasco, llamado a constituirse en el instrumento central para llevar a cabo la política del agua en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

URA está adscrita al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sometiendo su actividad en las relaciones externas a las normas de Derecho civil, mercantil y laboral, excepto en los actos recogidos en el artículo 6.2 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, que implican el ejercicio de potestades públicas, los cuales quedan sometidos a Derecho público.

URA tiene como objeto llevar a cabo la política de aguas en la Comunidad Autónoma del País Vasco desde una única organización. URA ejerce las funciones indicadas en el artículo 7 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, que se transcriben a continuación:

a) La elaboración y remisión al Gobierno, para la aprobación, modificación o tramitación ante las autoridades competentes, de los instrumentos de planificación hidrológica previstos en esta ley.

b) La participación en la planificación hidrológica estatal de las cuencas intercomunitarias, de acuerdo con su normativa reguladora.

c) Intervenciones para la protección del dominio público hidráulico, en especial el otorgamiento de las concesiones y autorizaciones administrativas, así como la vigilancia e inspección y sanción de las infracciones contrarias a la normativa reguladora del dominio público hidráulico.

d) Bere jardunaren arloei dagozkien xedapen orokorren proiektuak egitea eta EAEko agintari eskudunei helaraztea.

e) Estatuko Administrazioak eskualdatutako, eskuordetutako edo beraren ardurapean jarritako eskumenak.

f) Interes orokorreko obra hidraulikoak.

g) Uren Erregistro Nagusiaren antolamendu eta funtzionamendua.

h) Gune Babestuen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua.

i) Indarrean dagoen araudiaren arabera ezarri beharreko kanon eta zergei buruzko azterketak eta txostenak egitea.

j) Uraren arloan indarrean dagoen legediak ezarritako zergak kudeatu, kitatu, ikuskatu eta biltzea.

k) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txosten loteslea egitea. Txosten horrek udal-planeamenduaren eta jabari publiko hidraulikoaren babes eta erabileraren arteko lotura bakarrik izango du hizpide, sektore- edo ingurumen-arrazoiengatik aplika daitezkeen beste lege batzuk diotenari kalterik egin gabe.

l) Plan nagusiei, arau subsidiarioei, plan partzialei eta plan bereziei buruzko informazio loteslea ematea, horien hasierako onarpenaren aurretik. Txosten horrek EAEko interes orokorreko lanen eta udal-planeamenduaren arteko lotura bakarrik izango du hizpide, sektore- edo ingurumen-arrazoiengatik aplika daitezkeen beste lege batzuk diotenari kalterik egin gabe.

m) Uholdeak egon daitezkeen guneetan erabilera-mugak jartzea proposatzea Jaurlaritzari, baldin eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkoa izan daitekeela pentsatzen bada.

d) La elaboración y remisión a las autoridades competentes de la CAPV de los proyectos de disposiciones generales en materias propias de sus áreas de actuación.

e) Las competencias transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

f) Las obras hidráulicas de interés general.

g) La organización y funcionamiento del Registro General de Aguas.

h) La organización y funcionamiento del Registro de Zonas Protegidas.

i) El estudio e informe sobre la aplicación de cánones o tributos de conformidad con la normativa en vigor.

j) La gestión, liquidación, recaudación e inspección de los tributos establecidos en la legislación vigente en materia de aguas.

k) Informar con carácter vinculante los planes generales, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales después de su aprobación inicial. Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre el planeamiento municipal y la protección y utilización del dominio público hidráulico, y sin perjuicio de lo que dispongan otras leyes aplicables por razones sectoriales o medioambientales.

l) Informar con carácter vinculante los planes generales, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales antes de su aprobación inicial. Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre las obras de interés general de la CAPV y el planeamiento municipal, y sin perjuicio de lo que dispongan otras leyes aplicables por razones sectoriales o medioambientales.

m) La propuesta al Gobierno del establecimiento de limitaciones de uso en las zonas inundables que se estimen necesarias para garantizar la seguridad de las personas y los bienes.

n) Lehorretik itsasora isurketak egiteko baimena ematea.

o) Itsaso eta lehorraren arteko zor-eremuetan baimenak ematea, baita eremu horiek zaintzea, ikuskatzea eta haietan izandako arau-hausteak zehatzea ere.

p) Bere eskumeneko arloekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea.

q) Lege eta erregelamenduek agentziari jarritako gainerakoak, urez hornitzearekin, saneamenduarekin eta ureztatzearekin zerikusia duten arloetan bereziki, eta baita kudeaketa-organoak eta erabiltzaileen elkarteak kontrolatzearekin zerikusia dutenetan ere; esandakoez gainera, emango dizkioten gainerakoak ere bai.

r) Arloko eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta, jabari publiko hidraulikoaren babesa eta zaintza bermatzea.

n) La autorización de los vertidos tierra-mar.

o) La autorización en zonas de servidumbre marítimo- terrestre, así como su vigilancia, inspección y sanción.

p) La concesión de subvenciones relacionadas con materias de su competencia.

q) Cuantas otras le sean atribuidas por las leyes y reglamentos, en especial en relación con la política de abastecimiento, saneamiento y riego, así como con el control sobre los órganos de gestión y comunidades de usuarios/as y otras que le resulten adscritas.

r) Garantizar, en coordinación con las administraciones con competencias en la materia, la protección y conservación del dominio público hidráulico.

Beraz, URAren jarduera helburu horiek betetzean datza, eta, horretarako, obrak egiten ditu, bai jabari publikoarentzat, bai beste erakunde batzuentzat (gomendioak). Halaber, URA uraren arloko zergen (kanonen) bilketaz arduratzen da.

2011ko ekitaldian, URAk bere egoitza nagusia aldatu zuen. Lehen, Miñano udalerrian zuen (Araba), eta, orain, Gasteizen (Araba), Orio kaleko 1-3 zenbakian (4.3 oharra).

La actividad de URA consiste, por tanto, en el cumplimiento de dichos objetivos mediante la realización de obras para el dominio público y obras para otros entes (encomiendas). Asimismo, URA es la encargada de la recaudación de los tributos (canon) en materia de aguas.

En el ejercicio 2011, URA trasladó su sede principal ubicada con anterioridad en el municipio de Miñano (Álava), a la calle Orio, número 1-3, en Vitoria-Gasteiz (Álava) (Nota 4.3).

## 1.2. Aktiboak atxikitzea

Abenduaren 18ko 233/2007 dekretuak arautzen ditu Uraren Euskal Agentziaren jardueren hasiera eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioren giza baliabideak eta materialak agentzia horri atxikitzeko baldintzak ere, eta, hark ezartzen duenez, URAren jarduerak 2008ko urtarrilaren 1ean hasi ziren. Atxikipenari buruzko dekretu horretan ezarritako baldintzak honako hauek dira:

a) Uren Zuzendaritzako lanpostuak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko lurralde-bulegoetan urari buruzko gaietan eginkizunak dituzten lanpostuak URAri

## 1.2. Adscripción de activos

El decreto 233/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula el inicio de actividades de URA y las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración de la CAPV a la misma, establecía que URA iniciaba sus actividades el 1 de enero de 2008. Las condiciones fijadas en dicho decreto de adscripción fueron las siguientes:

a) Los puestos de trabajo de la Dirección de Aguas y los puestos que tienen atribuido el ejercicio de funciones en materia de aguas en las Oficinas Territoriales del Departamento de Medio Ambiente y

atxikitzen zaizkio. Gaur egun lanpostu horiek betetzen ari diren karrerako funtzionarioak edo bitartekoak URAn sartuko dira, eta orain arte aitorturik dauzkaten eskubideak gordeko dituzte, antzinatasuna barne dela.

b) URAk bere gain hartuko ditu administrazio orokorreko lan-kontratuko langileen kontratuak, betiere ulertuta langile horiek gaur egun urari buruzko gaietako eginkizunetan dihardutelarik betetzen ari direla lanpostuak bai Uren Zuzendaritzan bai Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko lurralde-bulegoetan. URAk errespetatu egingo ditu subrogazioz bereganatu dituen kontratuetako baldintzak eta ordainsariak; baita langileen antzinatasuna, lanbide-kidegoa eta kategoria ere.

c) Langileen ordainsari-araubidea izango da orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileentzat ezarrita dagoen hura.

d) URA subrogatzen da harreman juridiko subjektibo, eskubide eta betebehar guztietan, baldin eta URAren eginkizun eta aginpideei buruzko gaietan Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak gaur egun aitorturik dauzkan kontratu eta hitzarmenetan badago haien jatorria.

e) URAri egokitzen zaio bere aginpideei dagozkien espedienteak ebatzi eta gauzatzea, betiere URAren jarduerak benetan hasten diren egunean bukatzeke badaude.

f) Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen 61. artikuluari jarraituz, URAri atxikiko zaizkio titulartzat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra daukaten ondasun higiezinak, baldin eta hemendik aurrera URAk emango duen zerbitzu publikoari atxikita badaude. Halaber, higiezin horietan kokaturiko ondasun higigarri guztiak ere atxikiko dira.

Política Territorial se adscriben a URA. El personal funcionario de carrera o interino actualmente ocupante de los mismos se incorpora a URA conservando la totalidad de los derechos que tuviera reconocidos, incluida la antigüedad.

b) URA se subroga en los contratos del personal laboral de la administración general que actualmente ocupa puestos que ejercen funciones en materia de aguas en la Dirección de Aguas y en las Oficinas Territoriales del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial. URA respetará las condiciones y retribuciones de los contratos laborales en los que se subroga, respetando la antigüedad, el grupo profesional y la categoría profesional de las personas trabajadoras.

c) El régimen retributivo del personal será el que esté establecido, con carácter general, para el personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

d) URA se subroga en todas las relaciones jurídicas subjetivas, derechos y obligaciones que tengan su origen en los contratos y convenios que el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial tiene actualmente reconocidos en materias relativas a las funciones y competencias que corresponden a URA.

e) Corresponde a URA la resolución y ejecución de los expedientes relativos a las competencias que corresponden a ésta y que estén pendientes de finalización en la fecha de inicio efectivo de las actividades de URA.

f) De conformidad con el artículo 61 de la Ley 5/2006, de 17 de noviembre, del Patrimonio de Euskadi, se procederá a adscribir a URA los bienes inmuebles cuya titularidad corresponde a la Administración General de la CAPV afectados al servicio público que a partir de ahora va a ser prestado por URA, así como la totalidad de los bienes muebles ubicados en dichos inmuebles.

g) Erakunde horri atxikiko zaizkio orain URAk beteko dituen zeregin administratiboak iraunkorki betetzen dituzten eta Administrazio Orokorraren Ibilgailuen Atalari atxikita dauden ibilgailuak.

g) Los vehículos actualmente adscritos al parque móvil de la Administración General y destinados de manera permanente a la realización de tareas administrativas que ahora van a ser desempeñadas por URA pasarán a adscribirse a dicho ente.

2008ko urtarrilaren 1ean egindako transferentziaren xede diren eskubide eta betebehar nagusien xehetasuna honako hau da:

El detalle de los principales derechos y obligaciones objeto de la transferencia efectuada con fecha 1 de enero de 2008 es el siguiente:

| | Eurotan<br>*Euros* | | |
|---|---|---|---|
| | **Kostua**<br>***Coste*** | **Metatutako amortizazioa**<br>***Amortización acumulada*** | **Kontabilitate balio garbia**<br>***Valor neto contable*** |
| ***Ibilgetua (5. eta 6. oharrak)-***<br>***Inmovilizado (Notas 5 y 6)-*** | | | |
| Eraikinak eta eraikuntzak<br>*Edificios y construcciones* | 984.614 | (148.097) | 836.517 |
| Bestelako instalazioak<br>*Otras instalaciones* | 551.662 | (234.570) | 317.092 |
| Jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak<br>*Inversiones en bienes de dominio público* | 2.571.468 | (50.016) | 2.521.452 |
| Aribideko aurrerakinak eta ibilgetu materiala<br>*Anticipos e inmovilizado material en curso* | 8.126.244 | - | 8.126.244 |
| Garraio-elementuak<br>*Elementos de transporte* | 662.000 | (497.570) | 164.430 |
| ***Izakinak (4.5. oharra)-***<br>***Existencias (Nota 4.5)-*** | | | |
| Beste erakunde batzuentzat kudeatutako aribideko obrak (gomendioak)<br>*Obras en curso gestionadas para otros entes (encomiendas)* | 15.517.767 | - | 15.517.767 |
| **Guztira**<br>**Total** | **28.413.755** | **(930.253)** | **27.483.502** |

Aktiboen atxikipen horrek, URAren gizarte-funtsean, 11.965.738 euroko ordaina izan zuen, eta, merkataritzakoak ez diren hartzekodunen arloan, 15.517.767 eurokoa. Azken zenbateko hori, atxikitzerakoan aribidean zegoen obraren zenbatekotik sortu zen. Atxikipen hori URAk kudeatu zuen beste erakunde batzuentzat (gomendioak), azken helburua hirugarren bati kontraprestaziorik gabe lagatzea zela. 4.5 oharrean zehazten denez, 15.517.767 euroko zenbatekoa balantzetik kendu da aurrerapenagatiko diru-sarrerak ezagutzen diren heinean, eta kontzeptu horregatik ez da saldorik geratu 2019ko abenduaren 31n.

Esta adscripción de activos tuvo su contrapartida en el Fondo Social de URA por importe de 11.965.738 euros y acreedores no comerciales por 15.517.767 euros. Este último importe se derivó del importe de la obra en curso en el momento de la adscripción, gestionada por URA para otros entes (encomiendas) y cuyo destino final es la cesión a un tercero sin contraprestación. Tal y como se detalla en la Nota 4.5, el importe de 15.517.767 euros se ha venido dando de baja del balance conforme se reconocen los ingresos por grado de avance, no quedando saldo pendiente alguno por este concepto al 31 de diciembre de 2019.

2009ko ekitaldian, eta kontuan hartuta URAk ez daukala atxikipen horretatik datozen ondasunen existentzia fisikoari, osotasunari eta banakako

Desde el ejercicio 2009, y habida cuenta de que URA no dispone de un estudio que contraste la existencia física, integridad y valoración

balorazioari buruzko azterlanik, erakundeak ondasun horiek ez amortizatzea erabaki zuen.

I. eranskinean doa URAk atxikipenari buruzko 233/2007 dekretuaren arabera eskuratutako eskubide eta betebeharren xehetasuna.

## 1.3. Erakundearen jardueraren finantzaketa

Erakundea, bere izaera dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mendean dago erabat, bere jarduera garatzeko eta horretan aurrera jarraitzeko. Alde horretatik, aktibo finkoetan egindako inbertsio guztiak (horien artean jabari publikoko ondasunak) eta beste erakunde batzuentzat kudeatutako obrak jasotako kapitaleko diru-laguntzekin estaltzen dira guztiz. Beste alde batetik, jarduera propioaren gastuak kanonen jaulkipenetik sortutako diru-sarrera propioekin estaltzen dira zati batean, eta gainerako zatia jasotako ustiapenerako diru-laguntzekin estaltzen da osorik.

Urteko ekitaldi bakoitzerako aurrekontuaren eta benetan betearazitakoaren artean desbideratzerik gertatuz gero, kontabilitateko galerak gertatu ahalko dira. Lehenago azaldu den erabateko finantzaketako eskema dela eta, hori konpentsatzeko, Eusko Jaurlaritzak ekarpenak egin beharko ditu.

Azkenik, Gizarte Funtsaren bidez finantzatutako aktiboen amortizazioak ez dira finantzatzen. Hala ere, 2009ko ekitalditik, erakundeak ez ditu amortizatzen hasierako atxikipenetik datozen aktiboak, lehenagoko 1.2 oharrean zehazten denez.

Beraz, erakundearen aktiboen berreskuragarritasuna (barnean direla hasierako atxikipeneko aktiboak) lehenago azaldu den jardueraren erabateko finantzaketaren eskemaren barruan ebaluatu behar da.

individualizada de los bienes provenientes de la citada adscripción, el Ente optó por no proceder a la amortización de dichos bienes.

En el Anexo I se incluye el detalle de los derechos y obligaciones adquiridos por URA en función del decreto de adscripción 233/2007.

## 1.3. Financiación de la actividad del Ente

El Ente presenta, dada su naturaleza, una dependencia plena de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo y continuidad de su actividad. En este sentido, la totalidad de las inversiones en activos fijos (entre ellas los bienes de dominio público) y las obras gestionadas para otros Entes son cubiertas en su totalidad por las subvenciones de capital recibidas. Por otro lado, los gastos de la actividad propia son cubiertos parcialmente por los ingresos propios derivados de la emisión de los diferentes cánones quedando la parte restante cubierta en su totalidad por las subvenciones a la explotación recibidas.

En el caso de que se produjeran desviaciones entre el presupuesto para cada ejercicio anual y lo realmente ejecutado, podrían surgir pérdidas contables que dado el esquema de financiación plena descrita anteriormente habrá de ser compensada con futuras aportaciones del Gobierno Vasco.

Por último, las amortizaciones de los activos financiados mediante Fondo Social no son financiadas si bien desde el ejercicio 2009 el Ente no amortiza los activos provenientes de la adscripción inicial tal y como se ha detallado en la nota 1.2 anterior.

Por lo tanto, la recuperabilidad de los activos del Ente (incluidos los de la adscripción inicial) ha de ser evaluada en el marco del esquema de financiación plena de la actividad descrita anteriormente.

## 2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### 2.1 Finantza-informaziorako aplikatu beharreko arau-esparrua

Administratzaileek erakundeari aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera egin dituzte urteko kontu hauek. Arau-esparru hori honako hauetan ezartzen da:

a) Merkataritzako Kodean eta merkataritzako gainerako legerian.

b) Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorrean eta geroko aldaketetan, aldaketa horien artean dagoela duela gutxi abenduaren 2ko 6002/2016 Errege Dekretu bidez onetsitakoa; eta, halaber, alderdi jakin batzuei buruzko arauetan, martxoaren 25eko EHA/733/2010 Aginduari jarraituz, zeinak enpresa publikoentzat kontabilitate arloko alderdiak kontuan hartzen dituen.

c) Kontabilitateko Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko lanean Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak onartzen dituen eta nahitaez bete beharrekoak diren arauetan.

d) Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate araudian.

### 2.2 Irudi fidela

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak, erantsita doazen horiek, URAren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira eta aplikatu beharreko finantza-informaziorako arau-esparruaren arabera aurkezten dira, eta bereziki, esparru horretan bildutako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera. Hala, 2019ko ekitaldian URAren ondarearen, finantza-egoeraren, ondare garbiaren aldaketen, emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi fidela ematen dute.

Urteko kontu hauek URAko administratzaileek egin eta onartu dituzte.

## 2. Bases de presentación de las cuentas anuales

### 2.1 Marco Normativo de información financiera aplicable

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable al Ente, que es el establecido en:

a) Código de Comercio y la restante legislación mercantil.

b) El Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre y sus modificaciones posteriores incluyendo la aprobada recientemente por el Real Decreto 602/2016, de 2 de diciembre, así como las normas sobre determinados aspectos de acuerdo con la Orden EHA/733/2010 de 25 de marzo, que considera aspectos contables para empresas públicas.

c) Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.

d) El resto de la normativa contable española que resulte de aplicación.

### 2.2 Imagen fiel

Las cuentas anuales correspondientes al ejercicio finalizado el 31 de diciembre de 2019 adjuntas han sido obtenidas de los registros contables de URA y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que le resulta de aplicación y en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los cambios en el patrimonio neto, de los resultados y de los flujos de efectivo de URA habidos durante el ejercicio 2019.

Estas cuentas anuales han sido formuladas y aprobadas por los Administradores de URA.

## 2.3 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin garrantzitsua dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

## 2.4 Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Erantsitako urteko kontuak prestatzean, URAko administratzaileek eginiko zenbatespenak erabili dira inoiz, erregistraturiko aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu edo konpromisoetako batzuk baloratzeko. Oro har, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Aktibo jakin bazuen narriaduragatik egon daitezkeen galeren ebaluazioa (5. eta 6. oharrak).
- Aktibo materialen eta ukiezinen bizitza baliagarria (5. eta 6. oharrak)
- Hornidurak kalkulatzea.
- Uraren kanonarengatik eta hondakin-urak lurretik uretara isurtzeko kanonarengatik jasotako diru-sarrerak (15.1 oharra).

Zenbatespen horiek urteko kontu hauek egin zirenean aztertutako gertaerei buruz eskura zegoen informazio onenaren arabera egin ziren arren, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldaraztea (gorantz edo beherantz), batez ere COVID-19tik (ikusi 20. oharra) erator litezkeen balizko inpaktuak. Hori modu prospektiboan egingo litzateke, etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan zenbatespen-aldaketaren ondorioak aitortuz.

## 2.5 Informazioaren konparazioa

Merkataritza-legeriaren arabera, konparatzeko, balantzaren idazpen, galeren eta irabazien kontu, ondare garbian aldaeren egoera eta eskudiruaren fluxuen egoera bakoitzarekin, 2019ko kontuez gain, joan den urtekoak aurkezten dira. Bi ekitaldietako kontuak konparagarriak eta homogeneoak dira.

## 2.3 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

## 2.4 Aspectos relevantes de la valoración y estimación de la incertidumbre

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas se han utilizado estimaciones realizadas por los Administradores de URA para valorar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Básicamente estas estimaciones se refieren a:

- La evaluación de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos (Notas 5 y 6).
- La vida útil de los activos materiales e intangibles (Notas 5 y 6).
- El cálculo de provisiones.
- Los ingresos por canon de agua y de vertidos de aguas residuales desde tierra al mar (Nota 15.1).

A pesar de que estas estimaciones se realizaron en función de la mejor información disponible sobre los hechos analizados a la fecha de formulación de estas cuentas anuales, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en próximos ejercicios, especialmente los posibles impactos potenciales derivados del COVID-19 (véase Nota 20), lo que se haría de forma prospectiva reconociendo los efectos del cambio de estimación en las correspondientes cuentas de pérdidas y ganancias futuras.

## 2.5 Comparación de información

De acuerdo con la legislación mercantil, los Administradores presentan, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del Balance de Situación, de la Cuenta de Pérdidas y Ganancias, del Estado de Cambios en el Patrimonio Neto y del Estado de Flujos de Efectivo, además de las cifras del ejercicio 2019 las correspondientes al ejercicio anterior. Las

partidas de ambos ejercicios son comparables y homogéneas.

## 2.6 Partida multzoa

Galera eta irabazien kontuko, 2019ko abenduaren 31ko egoera-balantzeko, ondare garbian izandako aldaketen egoerako eta 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko eskudiru-fluxuen egoera-orriko zenbait partida taldekatuta aurkeztu dira errazago uler daitezen; hala ere, informazioaren garrantziaren arabera, banaka eskaini dira dagozkien memoriako oharretan.

## 2.6 Agrupación de partidas

Determinadas partidas del balance de situación a 31 de diciembre de 2019, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo del ejercicio anual finalizado el 31 de diciembre de 2019 se presentan de forma agrupada para facilitar su comprensión, si bien, en la medida en que sea significativa, se ha incluido la información desagregada en las correspondientes notas de la memoria.

## 2.7 Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Kontabilitate-irizpideetan ez da aldaketa handirik gertatu 2019ko ekitaldian, 2018ko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

## 2.7 Cambios en criterios contables

Durante el ejercicio 2019 no se han producido cambios de criterios contables significativos respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2018.

## 2.8 Akatsak zuzentzea

2019ko ekitaldian ez da akatsen zuzenketa aipagarririk egin.

## 2.8 Corrección de errores

Durante el ejercicio 2019 no se han producido correcciones de errores significativas.

# 3. Emaitzak aplikatzea

2019ko ekitaldian, erakundearen izaera kontuan izanda, eta haren jarduerak Eusko Jaurlaritzak emandako ekarpenekin finantzatuta daudela (4.11 oharra) eta atxikipenetik datozen ondasunen artean kapital diru-laguntzekin finantzatuta ez daudenengatik amortizaziorik ez dagoenez, oreka dago diru-sarreren eta gastuen artean, eta, beraz, emaitza zero da.

# 3. Aplicación de resultados

En el ejercicio 2019, habida cuenta de la naturaleza del Ente, encontrándose sus actividades financiadas por aportaciones recibidas del Gobierno Vasco (Nota 4.11), y que no existe amortización por los bienes provenientes de la adscripción que no se encuentran financiados por subvenciones de capital, existe un equilibrio entre los ingresos y gastos, y por tanto el resultado es cero.

# 4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

URAk 2019ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko erregistro- eta balorazio-arau nagusiak, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoekin bat, honako hauek izan dira:

## 4.1 Ibilgetu ukiezina

# 4. Normas de registro y valoración

Las principales normas de registro y valoración utilizadas por URA al elaborar sus cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2019, de acuerdo con las establecidas por el Plan General de Contabilidad, han sido las siguientes:

## 4.1 Inmovilizado intangible

Como norma general, el inmovilizado intangible se valora inicialmente por su precio de adquisición

Arau orokor gisa, ibilgetu ukiezina hasieran baloratzeko, eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua hartuko da. Geroago, kostuaren arabera baloratzen da, amortizazio metatua kenduta eta, hala badagokio, izan duen narriaduragatiko galerak kenduta. Aktibo horiek beren bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira.

o coste de producción. Posteriormente se valora a su coste minorado por la correspondiente amortización acumulada y, en su caso, por las pérdidas por deterioro que haya experimentado. Dichos activos se amortizan en función de su vida útil.

***Aplikazio informatikoak***

Erakundeak kontu honetan erregistratzen ditu ordenagailu-programak eskuratu eta garatzeagatik izandako kostuak, barnean direla webguneak garatzeko kostuak. Aplikazio informatikoak mantentzeagatiko kostuak, gertatzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan erregistratzen dira. Aplikazio informatikoen amortizazioa linealki egiten da, 5 urteko epean.

***Aplicaciones informáticas***

El Ente registra en esta cuenta los costes incurridos en la adquisición y desarrollo de programas de ordenador, incluidos los costes de desarrollo de las páginas web. Los costes de mantenimiento de las aplicaciones informáticas se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. La amortización de las aplicaciones informáticas se realiza aplicando el método lineal durante un periodo de 5 años.

## 4.2 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala atxikipenean esleitutako balioaren arabera baloratzen da (1. oharra), edo eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera, eta, geroago, metatutako amortizazioaren eta narriaduragatiko galerak kentzen zaizkio, jarraian azalduko den irizpidearen arabera.

Aktiboak atxikitzeari dagokionez, ekarritako ondasunen titularra Euskal Autonomia Erkidegoa da, baina ekonomia ustiapen bat zehazten duen ekonomia unitate autonomiaduna osatzeko gai diren ondare osagaien multzoa ekarri da, hau da, berez baliatzeko gai den multzoa. Horrez gain, jasotako ondasunen izaera eta eragiketaren funts ekonomikoa kontuan hartuta –jarduera-adar baten parekoa–, URAk ibilgetu materialaren epigrafe eta kontu egokietan erregistratu zituen jasotako ondasunak, beren izaeraren arabera.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuen kontserbazio eta mantentze gastuak egiten diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan egozten dira. Aldiz, ondasun horien ahalmena edo eraginkortasuna handitzen edo bizitza baliagarria luzatzen laguntzeko hobekuntzetan inbertitzen diren zenbatekoak kostu handiagotzat erregistratzen dira.

## 4.2 Inmovilizado material

El inmovilizado material se halla valorado al valor asignado en la adscripción (Nota 1) o a precio de adquisición o coste de producción y, posteriormente se minora por la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro, si las hubiera, conforme al criterio mencionado a continuación.

En lo relativo a la adscripción de activos, si bien los bienes aportados son titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al haber sido aportado un conjunto de bienes patrimoniales susceptibles de constituir una unidad económica autónoma determinante de una explotación económica, es decir, un conjunto capaz de funcionar por sus propios medios y atendiendo a la naturaleza de los bienes recibidos y el fondo económico de la operación, asimilable a una rama de actividad, URA procedió a registrar los bienes recibidos en los correspondientes epígrafes y cuentas del inmovilizado material en función de su naturaleza.

Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en el que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos.

Balio-galeraren zantzuak daudenean, URAk «narriadura-testa»ren bidez kalkulatuko du aktibo horien balio berreskuragarria liburuetako balioa baino gutxiagoko zenbateko batera arte murriztu ahal duen galerarik dagoen. Ondorio horietarako, zenbateko berreskuragarria da ondoko bi hauetatik handiena: aktiboaren zentzuzko balioa ken salmenta-kostuak eta erabiltze-balioa. Eta azken hori balioa galdutako birjartze-kostuaren arabera kalkulatzen da, eskudiru-fluxurik sortzen ez duten aktiboak izateagatik. 2019ko abenduaren 31n, URAko administratzaileen ustez, duela gutxi sortu zenez, ez dago narriadura-zantzurik, inbertsioak 2008 eta 2019 bitarteko ekitaldietan egin direlako.

Siempre que existan indicios de pérdida de valor, URA procederá a estimar mediante el denominado "Test de deterioro" la posible existencia de pérdidas que redujesen el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros. A estos efectos se entiende por importe recuperable el mayor importe entre su valor razonable menos los costes de venta y su valor en uso, estimándose este último por referencia a su coste de reposición depreciado, al tratarse de activos no generadores de flujo de efectivo. Al 31 de diciembre de 2019 los Administradores de URA consideran, que habida cuenta de su reciente creación, no existen indicios de deterioro por cuanto las inversiones realizadas se han efectuado en los ejercicios 2008 al 2019.

Halaber, kontuan hartuta URAren izaera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoa dela, eta administrazio horren mendean erabat dagoela bere jarduera modu normalean egiteko eta horretan jarraitzeko, eta administrazio horretatik diru-laguntzak jaso behar dituela izan ahal dituen defizitak ordaindu ahal izateko, balio-galerari eta aktiboen berreskurapenari dagokionez ondarean ager daitekeen eragina ere testuinguru horretan ebaluatu behar da, administratzaileen ustez ez baitago zalantzarik Eusko Jaurlaritzak erakundearen jarduera garatzeko etorkizunean egin ditzakeen ekarpenei buruz.

Asimismo, teniendo en cuenta la naturaleza de URA, y su pertenencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de quien presenta una dependencia plena para el normal desarrollo y continuidad de su actividad, y de quien ha de percibir las subvenciones al objeto de sufragar los déficits en los que pueda incurrir, el potencial impacto patrimonial que se pudiera poner de manifiesto, en su caso, en relación con la pérdida de valor y la recuperación de los activos ha de ser evaluada asimismo en dicho contexto, por cuanto los Administradores consideran que no existen dudas de las futuras aportaciones del Gobierno Vasco en el desarrollo de la actividad del Ente.

URAk metodo linealari jarraikiz amortizatzen du ibilgetu materiala, aktiboen kostua aurreikusitako bizitza baliagarriaren urteetan banatuta, xehetasun hauen arabera:

URA amortiza su inmovilizado material siguiendo el método lineal, distribuyendo el coste de los activos entre los años de vida útil estimados, según el siguiente detalle:

| | **Kalkulatutako bizitza baliagarria, urtetan**<br>*Años de vida útil* |
|---|---|
| Eraikinak eta bestelako eraikuntzak- *Edificios y otras construcciones* | *33* |
| Bestelako instalazioak- *Otras instalaciones* | *5-6* |
| Garraio-elementuak-*Elementos de transporte* | *5* |

2009ko ekitaldian, erakundeak jabari publikoan egindako inbertsioei aplikatu beharreko bizitza baliagarrien azterketa partziala egin zuen, aplikatutako amortizazio-koefizienteak berresteko, eta azterketa hori 2010eko ekitaldian osatu zen.

Durante el ejercicio 2009, el Ente elaboró un estudio parcial de vidas útiles aplicable a sus inversiones en dominio público al objeto de ratificar los coeficientes de amortización aplicados, que fue completado en el ejercicio 2010.

1. oharrak dioenez, 2008ko urtarrilaren 1ean URAk, balantzeko aktiboaren «Ibilgetu materiala» epigrafean 11.966 mila euro zenbatu zituen, abenduaren 18ko 233/2007 dekretuaren arabera atxikitako aktiboei emandako balio garbiarekin bat

Como se indica en la Nota 1, URA contabilizó el 1 de enero de 2008, en el epígrafe "Inmovilizado material" del activo del balance, 11.966 miles de euros que se corresponden con el valor neto otorgado a los activos adscritos conforme al

datozenak, eta zenbateko hori egoera-balantzeko «Ondare garbia» kapituluko «Gizarte funtsa» kontuan ordaindu zuen.

decreto 233/2007, de 18 de diciembre con abono a la cuenta "Fondo social" del capítulo "Patrimonio neto" del balance de situación.

2009ko ekitaldian, eta kontuan hartuta URAk ez daukala atxikipen horretatik datozen ondasunen existentzia fisikoari, osotasunari eta banakako balorazioari buruzko azterlanik, erakundeak ondasun horiek ez amortizatzea erabaki zuen. (1. oharra).

Desde el ejercicio 2009, y habida cuenta de que URA no dispone de un estudio que contraste la existencia física, integridad y valoración individualizada de los bienes provenientes de la citada adscripción, el Ente optó por no proceder a la amortización de dichos bienes. (Nota 1).

## 4.3 Errentamenduak

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, baldin eta errentamenduaren baldintzetatik ondorioztatzen bada maizterrari transferitzen zaizkiola, batik bat, kontratuaren xede den aktiboaren jabeari dagozkion arriskuak eta onurak. Gainerako errentamenduak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

***Finantza-errentamendua***
2019ko eta 2018ko abenduaren 31n URAk ez zeukan finantza-errentamendurik.

***Errentamendu operatiboa***
Errentamendu operatiboko hitzarmenetatik datozen gastuak galera eta irabazien kontuan kargatzen dira, sortzen diren ekitaldian. Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa guztiak kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartuko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie errentamendu-aldian zehar, alokatutako aktiboaren mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

## 4.3 Arrendamientos

Los arrendamientos se clasifican como arrendamientos financieros siempre que de las condiciones de los mismos se deduzca que se transfieren al arrendatario sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo objeto del contrato. Los demás se clasifican como arrendamientos operativos.

***Arrendamiento financiero***
A 31 de diciembre de 2019 y 2018, URA carece de arrendamientos financieros.

***Arrendamiento operativo***
Los gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en el que se devengan. Cualquier cobro o pago que pudiera realizarse al contratar un arrendamiento operativo se tratará como un cobro o pago anticipado que se imputará a resultados a lo largo del periodo de arrendamiento, a medida que se cedan o reciban los beneficios del activo arrendado.

## 4.4 Finantza-tresnak

### *4.4.1 Finantza-aktiboak*

*Sailkapena*

URAk dauzkan finantza-aktiboak funtsean kobratu beharreko maileguak eta partidak dira, ondasunen salmentan edo erakundearen trafiko-eragiketengatiko zerbitzugintzan sortuak, edo merkataritza-izaerarik ez dutenak eta ondare-tresnak edo eratorriak ez direnak, zeinen kobrantzak ez baitira zenbateko finkokoak edo zehazteko modukoak, eta zeinak ez baitira merkatu aktibo batean negoziatzen.

*Hasierako balorazioa*

## 4.4 Instrumentos financieros

### *4.4.1 Activos financieros*

*Clasificación*

Los activos financieros que posee URA son básicamente préstamos y partidas a cobrar: activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico del Ente, o los que no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

*Valoración inicial*

Finantza-aktiboak, orokorrean, hasieran, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioan erregistratzen dira, zuzenean esleitu ahal diren transakzio-kostuak gehituta.

Los activos financieros se registran, en términos generales, inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

*Geroagoko balorazioa*

*Valoración posterior*

Kobratu beharreko maileguak eta partidak beren kostu amortizatuan baloratzen dira, eta kobratu beharreko kontuak finantza arloan eguneratzen dira urtebetetik gorako mugaeguna dutenean.

Los préstamos y partidas a cobrar se valoran por su coste amortizado actualizando financieramente aquellas cuentas a cobrar con vencimiento superior a un año.

Ekitaldiaren amaieran, behintzat, URAk arrazoizko balioan erregistratuta ez dauden finantza-aktiboen narriadura-testa egiten du. Narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela uste da finantza-aktiboaren balio berreskuragarria liburuetan duen balioa baino txikiagoa bada. Narriadura gertatzen denean, hori galera eta irabazien kontuan erregistratzen da.

Al menos al cierre del ejercicio URA realiza un test de deterioro para los activos financieros que no están registrados a valor razonable. Se considera que existe evidencia objetiva de deterioro si el valor recuperable del activo financiero es inferior a su valor en libros. Cuando se produce, el registro de este deterioro se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Bereziki, eta merkataritzako zordunei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei dagokienez, URAk balorazio-zuzenketak –halakorik badago– kalkulatzeko erabiltzen duen irizpidea honako hau da: URAk kobratu behar dituen kontuen egoera espezifikoaren azterlan zehatza egiten du, eta aldaketa jakin batzuen ondoriozko berandutza izan ahal dutenak hornitzen ditu, baldin eta desorekaren bat sortu ahal badute. 2019ko abenduaren 31n kontzeptu horregatik ez zegoen inolako zuzkidurarik, eta kobratu beharreko kontu ia-ia guztiak partikularrekin eta administrazio publikoekin kobratu beharreko kontuak ziren, 2019ko eta 2018ko ekitaldiei dagozkien kanonak likidatzeagatik eta kanonak betearazpen-bidean likidatzeagatik, eta administrazio publikoekin diru-laguntzengatik. (14.1 eta 15.1 oharrak)

En particular, y respecto a las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, el criterio utilizado por URA para calcular las correspondientes correcciones valorativas, si las hubiera, es el siguiente, URA realiza un análisis exhaustivo de la situación específica de sus cuentas por cobrar, provisionando aquéllas sobre las que se hayan podido sufrir demoras derivadas de determinados cambios y que puedan llegar a suponer algún quebranto. A 31 de diciembre de 2019 no existe provisión alguna por este concepto, siendo la práctica totalidad de las cuentas por cobrar con particulares y Administraciones Públicas por liquidación de cánones correspondientes a los ejercicios 2019 y 2018 y liquidación de cánones en vía ejecutiva y con Administraciones Públicas por subvenciones. (Notas 14.1 y 15.1)

URAk finantza-aktiboen baja ematen du iraungitzen direnean edo finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak laga direnean eta euren jabetzari dagozkion arrisku eta etekinak nabarmen transferitu direnean.

URA da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad.

### 4.4.2 *Finantza-pasiboak*

Finantza-pasiboak dira URAk dituen zorrak eta ordaintzeko partidak, erakundearen eragiketengatik ondasunen eta zerbitzuen erosketan sortu direnak, edo jatorria merkataritzan izan ez arren finantza-tresna eratorritzat jo ezin direnak.

### 4.4.2 *Pasivos financieros*

Son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene URA y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones del Ente, o también aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Zorrak eta ordaintzeko partidak jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran, eta zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuekin doituta. Geroago, pasibo horiek euren kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira.

Los débitos y partidas a pagar se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado.

URAk finantza-pasiboen baja ematen du, halako pasiboak sorrarazi dituzten betebeharrak suntsitzen direnean.

URA da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

### 4.5 Beste erakunde batzuentzat kudeatutako obrak - Diru-sarrerak onartzea aurrerapenaren norainokoaren arabera

Beste erakunde batzuentzat egiten ari diren obra kudeatuetarako (gomendioak), aribideko obrarekin zerikusia duten diru-laguntzengatiko diru-sarrerak aurrerapenaren norainokoaren arabera onartzen dira, obra-ziurtagiriengatik jasotako kostuak bezala (11. oharra).

Aurrerapenaren norainokoa, aribideko obraren egikaritzapen teknikoaren norainokoaren arabera kalkulatzen da.

Aribideko obraren kostua, materialen eta beste gai kon0tsumigarri batzuen eskuratze-prezioaren arabera zehazten da. Aurrerapenaren norainokoaren irizpide hori erabiltzearen ondorioz, galera eta irabazien kontuan diru-sarrera gisa onartzen dira diru-laguntzak, izandako kostu errealen artean emaitza gisa ateratzen den zatiduraren arabera, instalatu eta hirugarrenaren eskura jarri arte egitea aurreikusten den kostu osoekin alderatuta. Horrenbestez, gomendio horiek ez dute emaitza ekonomikorik sortu URArentzat, erregistratutako kontsumoa diru-sarrerekin parekatzen delako.

### 4.5 Obras gestionadas para otros entes - Reconocimiento de ingresos por grado de avance

Para las obras gestionadas para otros entes en curso (encomiendas) los ingresos por subvenciones recibidas relacionados con la obra en curso se reconocen en función del grado de avance, al igual que los costes recibidos por certificaciones de obra (Nota 11).

El grado de avance se calcula en función del grado de ejecución técnica de la obra en curso.

El coste de la obra en curso se determina en función del precio de adquisición de los materiales y otras materias consumibles. El mencionado criterio de grado de avance conlleva el reconocimiento como ingreso en la cuenta de pérdidas y ganancias de subvenciones en función del cociente resultante entre los costes reales incurridos, respecto de los costes totales a incurrir previstos hasta la instalación y puesta a disposición del tercero. Consecuentemente, las citadas encomiendas no han generado resultado económico alguno para URA, al equipararse el consumo registrado con los ingresos.

### 4.6 Irabazien gaineko zergak

Arabako Foru Aldundiak 2009ko ekitaldian egindako kontsultaren babespean, erakundeak lortzen dituen errentengatik ez du etekinen gaineko zergarik ordainduko, eta sozietateen gaineko zergan aitorpena aurkezteko betebeharrik ez du.

Sozietateen gaineko zergaren aitorpena ez da aurkeztu behar arrazoi honengatik: Arabako Foru Aldundiak egindako kontsultaren arabera, zerga horren ordainketari dagokionez, URA zuzenbide publikoko erakunde gisa kalifikatu behar da, 24/1996 Foru Arauaren 9. eta 129.2 artikuluen

### 4.6 Impuestos sobre beneficios

Al amparo de la consulta realizada por la Diputación Foral de Álava en el ejercicio 2009, las rentas que obtenga el Ente no tributarán por el impuesto sobre beneficios, ni tiene obligación de presentar declaración por el impuesto sobre sociedades.

La consideración de exención de presentar declaración por el impuesto sobre sociedades viene determinada por el hecho de que, de acuerdo a la consulta realizada por la Diputación Foral de Álava, en lo relativo a la tributación de este impuesto, URA ha de ser calificada como entidad de derecho público a los efectos de los

ondorioetarako, bere izaera eta xedeak direla-eta ez duelako jasotzen zergagai den errentarik.

## 4.7 Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, haiek irudikatzen dituzten ondasun eta zerbitzuetako korronte erreala sorrarazten denean, haietatik eratortzen den korronte monetarioa edo finantzarioa sortzen den unea kontuan hartu gabe. Diru-sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, deskontuak eta zergak kenduta.

Salmenten sarrerak onartzen dira saldutako ondasunaren jabetzarekin batera doazen arrisku eta etekinak erosleari transferitzen zaizkion unean. Une horretatik aurrera ondasun horren gaineko kudeaketa gelditzen da, eta horren gaineko kontrola eusteari uzten zaio.

Zerbitzu-prestazioei loturiko sarrerak balantze-datan prestazioa burututako maila aintzat hartuz onartzen dira, betiere transakzioaren emaitza fidagarriki estimatua izan ahal bada.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bitartez onartzen dira, eta dibidenduak, berriz, akziodunak dibidendua jasotzeko eskubidea duela deklaratzen denean. Nolanahi ere, finantza-aktiboak eskuratu ondoren sortzen diren interesak eta dibidenduak diru-sarrera moduan kontabilizatuko dira galera eta irabazien kontuan.

## 4.8 Hornidurak eta kontingentziak

URAko administratzaileek, urteko kontuak egitean, honako hauek bereizten dituzte:

- Hornidurak: iraganeko gertakarietatik eratorritako gaur egungo betebeharrak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek ezeztatuz gero, baliteke baliabideak irtetea, baina zehaztugabeak dira zenbatekoari eta/edo ezeztatzeko uneari dagokionez.

- Pasibo kontingenteak: iraganeko gertaeren ondorioz sor daitezkeen betebeharrak, URAren nahiarekin lotuta ez dauden etorkizuneko gertakizun bat edo gehiago

artículos 9 y del 129.2 de la Norma Foral 24/1996, pues ni por su naturaleza ni por sus fines obtiene rentas susceptibles de imposición.

## 4.7 Ingresos y gastos

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. Dichos ingresos se valoran por el valor razonable de la contraprestación recibida, deducidos descuentos e impuestos.

El reconocimiento de los ingresos por ventas se produce en el momento en que se han transferido al comprador los riesgos y beneficios significativos inherentes a la propiedad del bien vendido, no manteniendo la gestión corriente sobre dicho bien, ni reteniendo el control efectivo sobre el mismo.

En cuanto a los ingresos por prestación de servicios, éstos se reconocen considerando el grado de realización de la prestación a la fecha de balance, siempre y cuando el resultado de la transacción pueda ser estimado con fiabilidad.

Los intereses recibidos de activos financieros se reconocen utilizando el método del tipo de interés efectivo y los dividendos, cuando se declara el derecho del accionista a recibirlos. En cualquier caso, los intereses y dividendos de activos financieros devengados con posterioridad al momento de la adquisición se reconocen como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias.

## 4.8 Provisiones y contingencias

Los Administradores de URA en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

- Provisiones: saldos acreedores que cubren obligaciones actuales derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/ o momento de cancelación.

- Pasivos contingentes: obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o

gertatzearen edo ez gertatzearen baitan badago haiek gauzatzea.

no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad de URA.

Kalkuluen arabera betebehar hori betetzeko probabilitatea hori ez betetzeko probabilitatea baino handiagoa zein horniduratan den, hornidura horiek jasotzen dira urteko kontuetan. Pasibo kontingenteak ez dira jasotzen urteko kontuetan, eta horien informazioa memoriako oharretan ematen da, urrunekotzat jotzen ez diren heinean.

